

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Abeltzainek 'minimis' laguntzak eskatu ahal izango dituzte abuztuaren 6tik irailaren 5era bitartean

Laguntzak abeltzainen ustiategietan inbertsioak egiteko maileguen interesetarako hobariak dira

Viernes, 05 de agosto de 2011

Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) gaur, abuztuak 5, argitaratu da ["minimis" araubideko laguntzak erregulatzen dituzten oinarriak jasotzen dituen foru agindua](#); laguntza horiek abeltzainen ustiategietako inbertsioen maileguen interesentzat hobariak emateko erabiltzen dira. Laguntzak telematikoki kudea daitezke [Zerbitzuen Katalogoan dagokien fitxaren](#) bidez edo Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentura edo eskualdeetako bulegoetara joanda. Eskerak aurkezteko epea bihar, abuztuak 6, irekiko da, eta 30 eguneko izango da; hots, irailaren 5era bitarte.

Minimis laguntzak ustiategietan likidezia-arazoak dituzten abeltzaintzat dira. Arazo horiek dituzte batik bat produkzio-kostuak igotzeagatik (nagusiki pentsuak, zerealaren prezioak igotzearen ondorioz), abeltzainen produktuei aplikatzen zaizkien prezioetan ez baitute ondoriorik izan. Egoera hori medio, abeltzainen ustiategi batzuk, bereziki esnetarako eta haragitarako behi-aziendak dituztenak, ordainketa-etenduran sartu dira.

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak pasa den uztailaren 18an erabaki zuen 300.000 euroko gasturako konpromisoa hartzea Foru Erkidegoko abeltzainek ustiategietan inbertsioak egin eta zorpetze hori diruz laguntzeko. Gastu hori gehituko zaio Estatuaren laguntzari; hots, [Nekazaritza Kauzioko Estatuko Sozietate Anonimoak \(SAECA\) abalen bidez](#) ematen duenari. Laguntza-pakete horretan bi lerro daude.

Lehena kreditu berrientzako laguntzak dira. Laguntza horiek eskatzeko, abeltzainen ustiategietako titularrek Estatuaren laguntza, SAECAk emandako abalen kostuaren gaineko hobaria, eskatu behar dute aurrez, eta horretarako epea abuztuaren 31n amaitzen da. Abala eskatutako kopuruaren %1,5 izan daiteke. Bestalde, Nafarroako Gobernuak aparteko finantzaketa gehitzen dio horri, 3 puntukoa bi urtetan zehar. Alegia, abeltzain bati %4ko intereseko kreditua ematen badiote, lehen bi urtetan soilik %1eko interesa ordainduko du, gainerakoa Foru Exekutiboak bere gain hartuko baitu.

Bigarren lerroa lehendik bazegoen gainerako autonomia erkidegoetan baina ez Nafarroan. Bigarren horren bidez, dagoeneko emandako kredituak izozten dira, abeltzainek ustategietan hobekuntza-planak egiteko edo lehen instalazioetarako kredituak jasota dituztenean. Kasu horietan, Foru Gobernuak finantzatzen ditu gabezia-denboraldi berriko interesak (gehienez 2 urte). Alegia, abeltzainak maileguaren ordainketak bi urtetan "izozten ditu", aktibo gehiago izate aldera krisi-garai honetan, interesetan inolako kosturik izan gabe.